

«Euskaltzaindikoek askotan erakutsi dute ez dutela ni hor egoterik nahi»

K

urrikulum bukaezina da Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi»rena, hau bezalako tarte txiki batean bere osotasunean azertu ezinekoa. Euskaltzain urgazlea, euskal literaturaren historian idazlea garrantzitsua, unibertsitateko irakaslea, ETaren sortzaileetakoa eta aspaldidanik HBko partaidea, hainbat gai izan ditugu hizpide elkarrizketa luze bezain interesgarrian. Dena ezin sartuta, hona hemen emankorrena.

Leioako batzar izan berri bonen ondoren, zein lebertasuni heldu beharko litzaioke?

Fonema bakarren ahoskera erraz onar daiteke, eta fonemen elkarketa batzuk ere argi daude. Azentuei buruz premia handia dago, bestela



«Hiztegiaren aberastasunean, karlistadetatik trenu galdu dugunez, orain euskara ez dago gaurko teknikaren beharrei erantzuteko prestatua. Teknika berrien inguruan, egokiera semantikoa... UZEI egiten ari den lana, oso garrantzitsua da».

erdal azentuak sartuko zaizkigu. Alor honetan zerbait lortzea posible da.

Euskara batuaren prozesuari buruz laudorioa izan da nagusi, baina bidean ere zerbait galduko zen.

Prozesu honetan euskara batua salbatu nahi dugu eta ez euskalkiak, eta ez maite ez ditugulako. Azentuari dagokionez, bada garaia bizkaiera kontuan hartzeko, bere azentuak interesgarri eta jatorrenak direlako. Justiziazkoa eta zientzia aldetik egokia da halako protagonismoa ematea.

Hiztegiaren aberastasunean, karlistadetatik trenatzen galdutako dugunez, orain euskara ez dago gaurko teknika beharrei erantzuteko prestatua. Teknika berrien inguruan, egokiera semantiko... UZEI egiten ari den lana oso garrantzitsua da.

Euskararen osasunaren inguruan, zein dira dituen arazo edo premiarik handienak?

Erabilpenaren inguruan esan daiteke berreskurapena hasi dela; ezaguera maila, berriz... Baikortasun txiki bat izateko arazoia badago, hala ere ez da ukatu behar oso puntu bajuetatik ateratzen ari garela.

Hirietan behintzat, Donostia lekuko, euskara lehen baino gehiago entzuten dela nabarmena da. Legazpiko kilometroak adibide harturik, ikusten da badagola oinarri bat, behetik badatorrela zerbait, alegia.

Kalitateari so eginez, erdarakadetara ohitzen ari gara. Lehen euskal belarria bazegoela esaten zen, eta egun jendeari ezerk ez dio minik egiten.

Ipar Euskal Herriko euskara kontuan bar-




tzeko beharra azpimarratu du berriki Ibon Sarasolak. Hego Euskal Herriko euskaldunok, nolabait, abaztu egiten dugula sarri Bidasoaz gaindiko bizkera.

«Lehen euskal belarria bazegoela esaten bazen, egun jendeari ezerk ez dio minik egiten»

Hegoaldean ez da ezagutzen eta literaturan garrantzitsuena izan arren, ez da estimatua. Harropuzkeriaz, ez ikusia egiten zaio. Hego eta iparraren artean harremanak estutu beharko lirarteke. «Euskaldunon Egunkaria» eredu onena dugu, batasunaren bidean.

ETBri dagokionez, Bizkaia eta Iparraldeko oso zaila egiten zaie erabiltzen den euskara ulertzea. **Euskaltzain urgazle za-**

«Erabilpenaren inguruan esan daiteke euskararen berreskurapena hasia dela. Baikortasun txiki bat izateko arazoia badago, hala ere ez da ukatu behar oso puntu bajuetatik ateratzen ari garela.»



«Islandia bezala, Estonia, Lituania eta Eslovenia, esate baterako, literatura normalizatua duten herriak dira eta herri hauetan gure eredia bilatu behar dugu, eredu nordikoa deritzana alegia. Hots, literaturak funtzio nazionala izatea».

ra, ez euskaltzain oso, ordea. Zure jarrera politikoak zerikusirik izan al du borretan?

Noski. Frankismo gogorpean, txosten oso garrantzitsuetan euskara batua lehen aldiz planteatu zuena Federico Krutwig izan zen. Ondoren, Alfontso Irigoien iritsi arte, Euskaltzaindia umezurtz gelditu zen. Ni euskaltzain urgazle 1957an izendatu ninduten, eta beste lagun batzuekin Euskal-

tzaindiaren Laguntzaileak izeneko taldea antolatzen ahalegindu ginen. Hori bertan behera gelditu zen, Euskaltzaindiak politika tarteko zela ikusi zuelako, ETAKoak baikinen.

«**Azentuari dagokionez, bada garaia bizkaiera kontuan hartzeko»**

Euskaltzaindiak ezer egiteko asmorik ez zuenez, 1963an dimisioa aurkeztu nuen Xarritonekin batera, euskara batuaren bideratzea eskatuz. Ez zitzaidan onartu. ETAKoak, iparraldean Eusko Idazkaritzaren inguruan komite bat sortu ondoren, euskara batuaren prozesua bideratzen hasi ginen.

Baionan euskara batuaren alde eginiko lehen kongresuan, Mitxelenak oso ondo ari ginela esanez idatzi zidan. Hori guztia ahaztua izan da, ez da aipatu ere egiten. Eta Baionako lanari segida emanez, 1968an Arantzazuko kongresua egin zen.

Euskaltzaindiak euskara batuaren kezka beti izan bado, nik barruan egon behar nuke. Hiru aldiz errefusatu naute. Ni inoiz ez naiz izango Euskaltzaindikoa, ez dut izan nahi, ez dut ezer jakin nahi ere. Behin eta berri erakutsi baitute ez dutela ni hor egotetik nahi. Benetan bidegabekeria izugarria izan da. Horregatik ez naiz joan Leioako bilerara.

Minduta antzematen zaizu. Hitz oso gogorrak dira boriek.

ETAkoen eta neure lana ezkututzen ari dira, eta hori fartsa bat da, guztia Baionatik bideratu baitzen. «Euskera» aldizkaria begiratzea besterik ez dago: euskara batuaren prozesua Krutwigek hasi eta gero nik planteatu nuen, eta hori ez da sekula esaten. Lehen kongresuetan, euskara batua gogor eskatzen genuenok Aresti eta biok izan ginen. Dagoeneko berandu da eta Euskaltzaindian eta Gasteizen atek itxi dizkidatenez, hori ez dut barkatzen. Guztia nire jarrera politikoagatik izan da, ETAKoa izan eta

«Ipar Euskal Herriko euskara Hegoaldean ez da ezagutzen eta literaturan garrantzitsuena izan arren, ez da estimatua»

HBkoa naizelako. Euskaltzaindiko urgazlerik zaharrena naiz.

Egiguzu HBk botoetan jasandako galeraren azterketa edo analisisia. Eta zein litzatekeen hortik itzuri egiteko hartu beharreko norabidea.

Boto-emaileak ez du irakurtzen, eta telebista, aldiz, guztiz garrantzitsua da. Telebistako zuzendarien jarra aldatzen ez den bitartean, botoa ez da aldatuko. Euren jokaera ikusirik, egoera nekez itzuliko da. Hezkuntza, telebista... dauden bezala egonik jai dugu. Nola ez gara jaitsiko, beraz?

Euskal Herriko egoerari irtenbidea emateko auzardia eta formula berrien premia azpimarratzen ari da azkenon.

Indar harremanak nola dauden ikusirik, ez dago buelta emateko aukerarik. Formula berri bat Buesa dagoen lekutik kentzea litzateke. Eta HBrekin ez dute hitzik ere egin nahi. Telebista piztuz analfabetismo orokorra nondik datorren ikusten da.

Zer iritzi duzu presoen bergizarteratzearen inguruan?

Amore ematea da, eta ez dut uste ETakoek hori onartuko dutenik. Preso kolektiboa batuta dago, ez dut dudarik. Nekatuta izan arren, ez dut uste amore emango dutenik.



Urriko hauteskundeen ondoren, areagotu egingo al du HBren partehartzea Gasteizko Parlamentuan?

Ez dut uste. HBko jende askok ez du bide horretan baxterre sinesten, neu barne, irtenbiderik gabekoa baita. Gauzak dauden bezala eta

autodeterminazioa eta beste gauza batzuk argi eta garbi onartuak ez badaude, ez nuke ezertan ere parte hartuko. **Zure liburu berria autobiografikoa izango da. Konta iezazkiguzu berrren nondik norakoak.**


Beronek sei kapitulu ditu. Lehen atalak Euskal Herri


«Euskara batuaren prozesu honetan euskara batua salbatu nahi dugu eta ez euskalkiak, eta ez maite ez ditugulako».

N O R T A S U N A G I R I A

Donostiako Antigua auzunean jaiotzen 1992ko irailaren 27an Jose Luis Alvarez Enparantza ● Aitona Tolosatik joan zen 1.904an, eta Antiguan, Txillardegiren izeneko baserria eta lurrak zeuden inguruan eraiki zuten etxea; hortik datorkio «Txillardegiren

goitizena ● Gurasoek bazekiten arren, ez zuten euskaraz egiten, eta bost urte zituela izan zuten lehenengo harremana euskararekin ● Sartreren ideiak izan ditu erreferentzia ● Euskal Herrian Euskaraz taldearen sortzaileetarikoa ● Euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu eta UEUko partaidea da ● Independentzia bere ametsa ● Euskal Herriaz kanpo Norvegian biziko litzateke





«Joserra Etxebarria bezalako profeta bat eta Koldo Gorostiaga, euskara unibertsitatean sartzeko bultzatzaile nagusiak izan direnak kalean daudela pentsatze hutsa injustizia nabarmena iruditzen zait».

zaharra du erro eta euskarak nola egin duen atzera. Datu ugari, euskarak Huescan, Pirinioetan izandako presentzia azaltzen dut.

Bigarrenean, karlismoa Euskal Herrian zer izan zen kontatzen dut, gaingiroki baina gauza garrantzitsuak azpimarratuz. Hirugarren atalean euskara batuaren prozesua jorratzen dut, inoiz kontatu ez ditudan gauzak aipatuz.

ETAren hastapenei buruzkoa laugarren atala litzateke. Horretan ere sekula esan ez diren gauzak jakitera emango ditut. Ekin-en sorrera, eztabaidak, dokumentu ezezagun batzuekin; guztia ni ETAtik atera arte. Bostgarrena ezker abertzaleari buruz izango da. Azken atalean, berriz, euskara eta autodeterminazioa dira gaiak, herri honen soluzio bakar bezala

« Hezkuntza, telebista... dauden bezala egonik jai dugu»

Hamaika bitxikeria ere dantzatuko dituzu, ez?

Besteak beste, ESBtik bota nindutenean aurkeztu eta ezagutzen ez diren txostenak azalduko ditut. Hortik aurrera, eta azken atala autodeterminazioa bada ere, nahitaez gaurko politikan sartu naiz.

Nola egin daiteke 500.000 lagunentzako literatura eta euskal kultura.

Badugu adibide interesgarriak. Islandian, adibidez, 230.000 dira eta sekulako produzioa dute, eta irakurzaletasun handia dago. Estonia, Lituania, Eslovenia... literatura normalizatua du-

ten herriak dira eta herri hauetan gure eredu bilatu behar dugu, eredu nordikoa deritzana alegia. Hots, literaturak funtzio nazionala izatea.

Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle dibar- duzu; nola ikusten duzu?

Masifikazioa sumatzen hasiak gara. Bestalde, Joserra Etxebarria bezalako profeta bat eta Koldo Gorostiaga, euskara unibertsitatean sartzeko bultzatzaile nagusiak izan direnak kalean daudela pentsatze hutsa injustizia nabarmena iruditzen zait.

Linguistikaren ikerkuntza arloa, gero eta gehiago, fakultateek egin behar dute, Euskaltzainditik Unibertsitatera pasatu behar da. Egungu baino oinarri hobek dituzten ikasketak egindako jende mordo dago.

JON ODRIUZOLA